

**Derioko Udalaren 2020ko azaroaren 4ko 400-2020 zk.ko Alkatetza Dekretuaren laburpena, Dekretu horren bidez, beste herrialde batzuetako umeak aldi batean hartzeko diru-laguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia onartu da.**

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 artikuluetan xedatutakoari jarraiki, deialdiaren laburpena argitaratu da, horren testu osoa kontsulta daiteke Diru-laguntzen Datu-base nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak

Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1.- Derioko bizilaguna izatea, eta udal erroldan gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea deialdi bakoitzari dagokionez.
- 2.- Harrera egiten duten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoan behar bezala erregistratutako elkarteen bidez kontaktu eta lekualdatuko dira.
- 3.- Diru-laguntzen araudian ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

Bigarrena.- Helburua

Diru-laguntza honen xedea da beste herrialde batzuetako haurrak aldi baterako hartzen dituzten familiei diru-laguntzen emakida arautzea, haien egoera soziosanitarioa eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Diru-laguntzak barne hartuko ditu jatorrizko herrialderako bidaiak eta itzulerak eragindako gastuak, deialdi bakoitzaren urtean egindako harrerengatik.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Oinarriak argitaratu dira 2020ko urriaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020.

[https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao\\_bob/2020/10/27/II-3418\\_eus.pdf?hash=1bbb6cf41fb176a88864cf1083477339](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/10/27/II-3418_eus.pdf?hash=1bbb6cf41fb176a88864cf1083477339)

Laugarrena. Zenbatekoa

Dagokion deialdiak ekitaldi bakoitzerako laguntzen hornidura finkatuko du bere aurrekontu banaketa zehaztuz.

Diru-laguntzak emango zaizkie eskatzaile guztiei, baldin eta Ordenantza honetan dauden baldintzak betetzen badituzte. Eta diru-laguntzaren zenbatekoa izango da irizpide hauen arabera:

1. Gastua frogatu eta horretatik %50era iritsiko da diru-laguntzaren zenbatekoa, aurrekontuaren partida bakoitzak duen kreditura arte.
2. Eskaera ugari egon eta aurrekontuaren kredituak ezin badu %50a ordaindu, kreditua banatuko da onuradunen artean, gastu frogatuaren ehunekoa berdina izan dezaten.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea izango da 2020ko azaroaren 30era arte.

Derio, 2020ko azaroaren 4a

Alkatea, Esther Apraiz